



Udal agiria A T A U N

2019 UDAKO HAUR ZAINZA ZERBITZURAKO LAN DEIALDIA

Ataungo Udalak Udaran Haur Zaintza Zerbitzua burutzeko HEZITZAILEA kontratatzeko deialdia zabaltzen du. **Ekainaren 24tik-Uztailaren 26ra arte.**

Interesa duen orok izena eman dezake Ataungo Udaletxeko bulego orokorrean. Izena ematearekin batera **Curriculuma** aurkeztu behar da eta bertan adierazitako,

+ Tituluak

+ Diploma

+ Bestelako egiaztagiriak: Sexu delituen aurrekaririk ez duela jasotzen duen ziurtagiria.

(Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan eskatutako ziurtagiria).

Bereziki balioetsiko da:

Haur Hezkuntza titulua izatea.

Euskaraz hitz egitea; Lan esperientzia: Haur zaintzan eta Haur Hezkuntzan lan egin izana.

2019 HAUR UDALEKU IREKIETAKO BEGIRALEEN LAN DEIALDIA

Ataungo Udalak haur udalekuetarako BEGIRALEAK kontratatzeko deialdia zabaltzen du. **Ekainaren 24tik-Uztailaren 26ra arte.**

Interesa duen orok izena eman dezake Ataungo Udaletxeko bulego orokorrean. Izena ematearekin batera **Curriculuma** aurkeztu behar da eta bertan adierazitako,

+ Begirale Titulua

+ Diploma

+ Bestelako egiaztagiriak: Sexu delituen aurrekaririk ez duela jasotzen duen ziurtagiria .

(Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan eskatutako ziurtagiria).

Bereziki balioetsiko da:

Euskaraz hitz egitea; Lan esperientzia: Udalekuetan lan egin izana.

Hauetarako izena emateko eta dagozkion agiriak aurkezteko,

Udaletxeko Bulego orokorrean aurkeztu beharko dira,

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik-14:00ra, Asteartetan 17:00etatik 19:00etara

943180011

EPEA: APIRILak 29tik – MAIATZak 10a arte.

Deialdian parte hartzeko interesa izanez gero eta edozein zalantza argitzeko, Teknikariarekin harremanetan jarri.

ataunaisia@ataun.eus



Udal agiria ATAUN

HAUR UDALEKUETAN BEGIRALE PRAKTIKAK BURUTZEKO AUKERA

Herrian antolatzen diren HAURREN UDALEKUETAN, begirale titulua atereatzen ari zareten herritarrei, bolondres modura BEGIRALE PRAKTIKAK egiteko aukera zabaltzera gatoz.

Haurrekin jardutea gustuko duzuen edota geroan zuen burua heziketa inguruan ikusten duzuenontzat interesgarria izango delakoan gaude. Esperientzi berri bat bizitzearekin bat, heziketaren mundua barnetik ezagutzeko aukera izango duzue.

*Udalekuak, 3-12 urte bitarteko haurrekin eramaten dira aurrera eta **Ekainaren 24tik Uztailaren 26ra arte** izango dira, goizeko ordutegian.*

EPEA: APIRILAk 29tik – MAIATZAK 10a arte.

Eskaera orria udaletxean egongo da eskuragarri. Adin txikikoa bazara, familiaren baimena betetzea derrigorrezkoa izango da.

Udaldiaren amaieran, udaletxeak, udalekuetan parte hartu duen gazteari bolondres lanean egin dituen orduen ziurtagiri bat luzatuko dio edo eta Praktikak burututako ziurtagiria ofiziala ere bai.

Besterik gabe, parte hartzera animatuz agurtzen gara.

Ataungo udaldiko haur, nerabe eta gazte ekintzen koordinazio taldea.

Hauetarako izena emateko eta dagozkion agiriak aurkezteko,

Udaletxeko Bulego orokorrean aurkeztu beharko dira,

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik-14:00ra, Asteartetan 17:00etatik 19:00etara

943180011

Deialdian parte hartzeko interesa izanez gero eta edozein zalantza argitzeko, Teknikariarekin harremanetan jarri.

ataunaisia@ataun.eus

Ataunen, 2019ko apirilaren 15ean

